

Udaberriko loraldian jarriak

I

Etxekoandre bik lehengo hileko patioan, goiz batean, loreak ureztatzen zituzten berba egin bitartean:

II

PSE: Egunon, Pilar. PP: Kaixo, Paloma.
PSE: Ai ene, zenbat denbora, azken aldian ez zara sarri ateratzen patioa!

III

PP: Franciscorekin ibili izan naiz modistotik modistora...
PSE: Estibaliz gaur ere ez da azaldu egongelako leihora...

IV

PP: Ez al duzu ikusi mudantzen kamioia behera eta gora?
Entzun dudanez joan behar du bizitzera Laudiora.

V

PSE: Baina geranioen potoak ahaztu ditu erlaitzean...
PP: Ziur orbelik ere ez duela utziko etxex aldatzean.

VI

PSE: Egia esan, hosto idorrrak moztu beharko lituzke.
PP: Nireak balira, zurtoinetik kimatu nahiko nituzke.

VII

PSE: Zure pentsamenduen artean erramu asko daukazu...
PP: Hiru koloreko bioleta "pentsamendu" deitzen duzu?



INIGO AZKONA

VIII

PSE: Batzuek asun, besteek osin, erramu edo ereinotz, gauza beraren bi berba dira tulipa eta idi-bihotz.

IX

PP: Zure erlaitza beti izan da oso gustu onekoa, kolore ugarikoa, baina pentsamendu gabekoa.

X

PSE: Landareak mintzagai izanik, ezetz asmatu esaten zure senarrak eta *aloe verak* zer antza daukaten?

XI

PSE: Zenbat eta gehiago ikertu, zenbat eta gertuago, aurkitzen zaio orduan eta propietate gehiago.

XII

PP: Tira, zuek ere ez zaudete diruaren eskasian; txanpon-lore gehiegi daukazu ezkerreko lorontzian.

XIII

PSE: Zergatik ez dituzu zeuk ere hazitxo batzuk landatzen?
Abilezia sumatzen dizut barrabas-belarra sartzen.

XIV

PP: Zure arrosak ere aspaldi zimeldu ziren erabat.
PSE: Gehienak bai, baina guztiak ez, bada biziraundako bat.

XV

PSE: Arrosa haren haziak, nire potoan landatu arren, hazi orduko zure patora alde egin zuen pozarren!

XVI

PP: Nik aldaketa onartu nuen, ustez, loreen onerako, baina arantza gehiegi ziren poto bakar baterako!

XVII

PP: Hemengo hau arantzatsua da, baina hazten dabil ongi...
PSE: Zehazki ez al da pestizidarik gabe hazitako hori?

XVIII

PP: Beno, Paloma... PSE: Bai, Pilar, agur...
Ostendu ziren etxean, elkarri lorerik bota gabe lore-aipe bakoitzean.

XIX

Auzokideak ibiltzen dira beti elkarri mokoka, baina berehala batzen dira hirugarren baten kontra.

*PP (Pilar Prestamero)

*PSE (Paloma Sarriegi Espi)

DOINUA: Axuri beltza ona duk baina.